

8.– FORMOSA



nengo gudara arte. Andik janari ego-kiak atera ebazan Japon'ek

Komunistak Txina menperatu ebenean, Formosa Txina'ko abertzaleen esku geratu zan, Txang Kai.Txek buru zala.

Amar milloi bizi-lagun dira eta eurretatik 110 000 basatiak, nekazariak eta baketsuak, baiña gizon aundia izateko besteen buruak arrapau bear dabez, zenbat eta geiago eurak aundiagoak. Buru oneik banbuzko sareetan erakusten dabez.

Nekazariak sartaldean dagoz eta lortzen dabena arrosa, azuke-

rea, platanoa, tabakoa, sisak, kakauetea eta babak dira. Ipar-Ameriketan ondo saltzen da eurak lortzen dabena tea. Neskak egiten dabe tearen lana. Eta orretarako azatzal bat eukiten dabe luzeagoa..

Arrozak urtean iru uzta emoten dauz eta ura jazoteko misiolari espāñatar baten irakatsitako tramankulua dauke, anakaz eragitekoa.

Egurrezko gurpildunen otsa entzuten da zelaietan, basa-idiak eroale dirala. Eta gauzak azokara eroaten dabez.

Alkanfor-landarak berez sortuak dira eta Japon'darrak konturatu ziran onen balioaz. Gobernuak artu eban zugatz onen lana.. Landara beratetik ateraten dabe asko balio dauan sendagai bat.

Erriak eta uriak oso zaratsuak dira: motoak, bizikletak, olezko gurdiak, jeepeak, idi-gurdiak, eskuko gurdiak... eta guztiak zerbait saltzen.. Illobiratzek eta ezkontzak be zarata aundia ateraten dabe. Gaiñera oilloen karakak, txarrien kurrinkak...

Olazar'tar Martin'ek

1590n. urtean itxas-gizon portugaldar batzuk Txina'ren egoaldetik 90 millara egoan ugarte batera sartu ziran. "Ederra" esan nai dauan Formosa ipiñi eutsoen izena ugarte oneri.. Txina'tarrak Taiwan esaten dautsoe.

Formosa-inguruan beste 64 000 ugartetxu dagoz

Ugarte aundi onek 360 km. ditu luzeran eta 120 zabaleran. Itxasotik laster 1 000 m.'ko goiorea dauken mendiak dagoz. Atzerako 4 000 m.'ko goieradunak. Arroz-soloak ditu ugari, errekatxuak ondo buztuta.. Arroz-ingurua palmaz eta askotariko zugatzez beterik dago. Baso aundia arago, eta bitarteetan orkide-loreak ugari.. Gorago alkanfor-zugatzak. Gorago piñuak. Piztiak be ugari: Orkatz nabarra, basauntza... Bertako biztanleak eiztariak be ba-dira.

Sartaldean XVI gizaldira arte ez zan ezaguna Formosa. Gizaldi orretan urreratu ziran ara portugaldarrak eta espāñatarrak eta koloniak jarri ebezan. Txinatarrak ez eutsen izten sartzen.

1664n. urtean mantxuriatarrak egin ziran jabe eta Kotxingan jarri eben errege. Olandar batzuk bizi ziran an eta kanpora bialdu ebazan errege onek..1895n. urtean Txina'ren eta Japon'en arteko gudaren ondoren, Formosa Japon'eri emon eutsoen eta onen menpean izan zan azke-